

Hau gola!



Gaur ostirala da. Arratsaldeko zazpitan eskolako futbol-txapelketaren finala izango da. Gure lagunak Txikerra Futbol Taldean daude. Orain seiak bost gutxiago dira eta aldagelan daude entrenatzailearekin. Laster futbol-zelaira joango dira. Entrenatzaileak esaten die:

—Hurbil zaitezte, mesedez, eta esan nirekin: RA-RA-RU-RU, guk irabaziko dugu!

Futbol-zelaira joan dira. Han erdian, bi kapitainak daude, arbitroarekin.

—Zortea izan —esaten dio Janirek.

—Berdin —erantzuten dio Lorategietako kapitainak.

Partidua hasi da eta bi taldeak oso ondo jolasten ari dira. Ikusleak kantatzen eta animatzen ari dira:

—Aupa Txikerra! Zuek irabaziko duzue.

—Lorategieta txapeldun, txun, txun!

Bapatean, Izaskunek baloia hartu du eta aurrera doa. Aurrean Janire dago.

—Pasatu niri! —esaten du Janirek, baina atzelari bat dago eta lurrera bota du.

—Pirrrit! Falta izan da —dio arbitroak.

—Barkatu. Nahi gabe izan da —esaten dio Lorategietako atzelariak.

—Lasai. Ez da ezer —erantzuten dio Janirek.

Gutxi falta da bukatzeko eta huts eta huts doaz. Horrela bukatuko ote da partidua? Ez, Gorkak baloia pasatu nahi dio bere atezainari eta... gola sartu du bere atean. Hau pena! Txikerrak galdu egin du partidua.



HAU GOLA!

Eman erantzuna galdera hauei:

1.- Noiz izango da futbol-txapelketaren finala?

.....

2.- Zer ordu da orain?

.....

3.- Norekin daude aldagelan gure lagunak?

.....

4.- Non daude bi kapitainak?

.....

5.- Zer egiten ari dira ikusleak?

.....

6.- Nork hartu du baloia bapatean?

.....

7.- Nor dago Izaskunen aurrean?

.....

8.- Nori pasatu nahi dio baloia Gorkak?

.....

9.- Non sartu du gola Gorkak?

.....

10.- Nortzuk galdu dute partidua?

.....